



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko urriaren 27a

121. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak enpresa pribatuei emandako dirulaguntzei buruzko fiskalizazio-txostena 2020, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak enpresa pribatuei emandako dirulaguntzei buruzko fiskalizazio-txostena 2020, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak enpresa pribatuei emandako dirulaguntzei buruzko fiskalizazio-txostena 2020 egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak enpresa pribatuei emandako dirulaguntzei buruzko fiskalizazio-txostena 2020, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera (3. or.).
- II.** Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak enpresa pribatuei emandako dirulaguntzak (3. or.).
 - II.1. Enpresa pribatuentzako transferentzientzirik gabeko gastua (3. or.).
 - II.2. Dirulaguntzen plan estrategikoa (6. or.).
 - II.3. Aplikatzekoa den esparru juridikoa (8. or.).
- III.** Helburuak eta norainokoa (9. or.).
- IV.** Konklusioak eta gomendioak (11. or.).
 - IV.1. Legediaren betetzearen fiskalizazio-irritzia (11. or.).
 - IV.2. Fiskalizazio finantzarioko iritzia (14. or.).
 - IV.3. Dirulaguntzei buruzko plan estrategikoa-ren analisia. (14. or.).
 - IV.4. Amaierako konklusioa eta gomendioak (15. or.).
1. eranskina.- Berrikusitako deialdien xehakapena (17. or.).

I. SARRERA

2020. urterako onetsitako fiskalizazio-programan, Kontuen Ganberak legeriaren betetzeari buruzko fiskalizazio bat egitea jaso zuen “enpresa pribatuentzako dirulaguntza arruntei eta kapitalekoei buruz”.

Txostenak lau epigrafe ditu, sarrera hau barne; bigarrenen, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren (NFKA, aurrerantzean) transferentzien alderdi orokorrak deskribatzen dira; hirugarrenak txosten honen helburuak eta norainokoa deskribatzen ditu, eta azkena den laugarrenen biltzen dira egindako lanean oinarrituriko konklusioak eta gomendioak. Halaber, eranskin bat badu, berrikusitako deialdien xehetasunekin.

Lana 2021eko apiriletik ekainera bitartean egin zuen auditoretzako bi teknikarik eta sistema informatikoetako erdi mailako teknikari batek eta auditore batek osatutako lantaldeak, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridiko eta administratiboen laguntzarekin.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan jasotakoaren arabera, lan honen emaitzak Ekonomia eta Ogasuneko eta Eskubide Sozialetako kontseilariak jakinarazi zitzaizkien, bai eta Lurraldeko Kohesioko, Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko eta Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak ere, alegazioak aurkez zitzaten. Jarritako epea iraganda, ez da alegaziorik aurkeztu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu NFKAko departamentu eta erakunde autonomoetako langileei lan hau egiterako eman diguten laguntzagatik.

II. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAK ENPRESA PRIBATUEI EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

“Transferentzia” terminoak funts publikoak kontraprestaziorik gabe erabiltzea adierazten du, dirulaguntzaren berezko ezaugarriak izan nahiz ez izan. Bestalde, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak (DFL, aurrerantzean), honela definitzen du dirulaguntza: pertona publiko edo pribatuen alde egindako diruzko xedapen oro da dirulaguntza, baldintza hauek betetzen dituen: onuradunen kontraprestazio zuzenik ez izatea; xede jakin bat betetzeari, proiektu bat egiteari edo jarduera bat burutzeari lotuta egotea; xede gisa jarduera publiko bat edo interes sozial bat sustatzea izatea, edo xede publikoa bultzatzea.

II.1. ENPRESA PRIBATUENTZAKO TRANSFERENTZIENGATIKO GASTUA

2020an, transferentzia arruntei eta kapitalekoei dagokien gastua NFKAren gastuaren ehuneko 40 da.

Gastu horiek enpresa pribatuei emandako transferentzia arruntak eta kapitalekoak jasotzen dituzte; haien aurrekontu-betetzea, izan ere, honako taula honetan ageri da:

| Artikuluak | Amaierako kredituak | Aitortutako betebeharrak garbiak | Egindako ordainketak |
|--|----------------------|----------------------------------|----------------------|
| Enpresa pribatuentzako transferentzia arruntak | 145.450.387 | 119.864.446 | 116.748.699 |
| Enpresa pribatuentzako kapital-transferentziak | 91.073.215 | 60.267.455 | 41.838.688 |
| Enpresa pribatuentzako transferentziak, guztira | 236.523.602 | 180.131.902 | 158.587.386 |
| 4. eta 7. kapit. guztira | 1.953.665.265 | 1.848.740.675 | 1.817.041.642 |
| <i>4. eta 7. kapit. guztira</i> | <i>12,11</i> | <i>9,74</i> | <i>8,73</i> |

2020an enpresa pribatuei egindako transferentziek, arruntek zein kapitalekoek, 180 milioi egin zuten. Aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 9,7 dira.

Honako hau izan da gastu horren azken bost urteetako bilakaera:

| Transferentzia-mota | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2020/2019 aldea (%) | 2020/2016 aldea |
|--------------------------|-------------------|--------------------|--------------------|--------------------|--------------------|---------------------|-----------------|
| Arruntak | 59.418.645 | 64.341.492 | 77.386.246 | 91.319.730 | 119.864.446 | 31,26 | 101,73 |
| Kapitala | 38.946.853 | 39.421.376 | 41.280.301 | 36.452.333 | 60.267.455 | 65,33 | 54,74 |
| Guztizko orokorra | 98.365.498 | 103.762.868 | 118.666.547 | 127.772.064 | 180.131.902 | 40,98 | 83,13 |

Enpresa pribatuentzako transferentziengatiko gastu horiek ehuneko 41 egin zuten gora 2020an, 2019koekin alderatuta. Igoera nabarmen horren arrazoia dira, funtsean, COVID-19ak sortutako osasun krisiari aurre egiteko laguntza berezi eta urgentiak.

Transferentzia arrunten eta kapitalekoen 2020ko gastua, COVID-19a tartean dela egindakoa, 42,8 milioi eurokoa izan da. Hona hemen xehetasunak:

| Izendapena | 2020 |
|---|-------------------|
| Langile autonomoentzako laguntzak. 3/2020 Foru Lege-dekretua | 24.029.700 |
| Turismoaren eta Ostalaritzaren arloko enpresa txiki eta ertainentzako dirulaguntzak | 13.541.412 |
| Nekazaritza sektorearentzako laguntzak | 2.935.943 |
| Bidaiarien garraio-zerbitzuak mantentzeko laguntza | 1.363.969 |
| Kalte eta galeren ordainak | 955.418 |
| Garbiketa-kontratuak eteteagatiko kalte-ordaina | 25.352 |
| Kontratuak eteteagatiko kalte-ordainak | 3.275 |
| Guztira | 42.855.068 |

Jasotzaileen taldearen arabera betetzea

Enpresa pribatuentzako 2020ko transferentzien guztizkoaren aurrekontu-betetzea, jasotzaileen taldearen arabera, honako taula honetan ageri da:

| Ekonomikoa | Arruntak | Kapitala | Guztira | % guztizkoaren gainean |
|--|--------------------|-------------------|--------------------|------------------------|
| Nekazaritzako eta abere-hazkuntzako enpresei | 39.463.841 | 10.701.492 | 50.165.333 | 27,85 |
| Merkataritza- eta industria-enpresei | 1.690.589 | 45.956.571 | 47.647.160 | 26,45 |
| Beste enpresa pribatu batzuei | 78.710.016 | 3.609.393 | 82.319.408 | 45,70 |
| Guztizko orokorra | 119.864.446 | 60.267.455 | 180.131.902 | 100,00 |

Nekazaritzako eta abeltzaintzako enpresek 50 euro jaso zituzten. Zenbateko horretatik, ehuneko 78 transferentzia arruntei dagokie. Nagusiki Landa Garapeneko Departamentuak emandako laguntzak dira. Nekazaritzako eta abeltzaintzako enpresentzako COVID laguntzek 2,9 milioi egiten dute.

Honako hauek dira gastu horiek osatzen dituzten kontzeptu nagusiak:

| Deskribapena | Aitortutako betebeharrak, 2020 | %, guztizkoaren gainean |
|---|--------------------------------|-------------------------|
| Nafarroako Ubideko ureztatze-kanona | 21.988.562 | 44 |
| Nekazaritza- eta ingurumen-neurriak eta ingurumen-kontentsazioko ordaina FEADER funtsak | 12.691.587 | 25 |
| Aseguru primen kontentsazioa Agroseguroren bitartez | 3.330.842 | 7 |
| Nekazaritza-sektorearentzako laguntzak, COVID-19aren krisia dela eta | 2.935.943 | 6 |

Merkataritza- eta industria-enpresek gastuaren ehuneko 26 egiten dute: 48 milioi. Zenbateko horretatik, ehuneko 96 enpresa pribatuentzako kapital-transferentzietan dago. Transferentzia horietatik gehienak Garapen Ekonomikorako Departamentuak ematen ditu.

Honako hau da gastu-kontzeptu nagusien xehaketa:

| Deskribapena | Aitortutako betebeharrak, 2020 | %, guztizkoaren gainean |
|--|--------------------------------|-------------------------|
| I+D proiektuetarako eta FEDER eta FEADER funtsekin finantzaturako inbertsioetarako dirulaguntzak | 28.670.495 | 60 |
| I+G proiektu estrategikoetarako kapitaleko dirulaguntzak RIS3 Nafarroa | 13.898.042 | 29 |
| Enpresa handietan inbertitzeagatiko dirulaguntzak | 1.581.959 | 3 |
| Ikertzaileak kontratatze laguntzak | 558.400 | 1 |
| Bono teknologikoak | 345.982 | 1 |

Beste enpresa pribatu batzuek —esate baterako, enplegu zentro bereziek, enpresa txiki eta ertainek, ekonomia sozialeko enpresek edo produkzio eszenikoetako enpresa edo profesionalak— 82 milioi jaso dituzte. Zenbateko horren ehuneko 95 transferentzia arruntei dagokie. Feder funtsek laguntza horietatik 0,4 milioi baizik ez dute finantzatu. Beste enpresa batzuentzako COVID laguntzak 39.9 milioi egiten dute; horien artean, nabarmentzekoak dira “Turismoaren eta Ostalaritzaren arloko enpresa txiki eta ertainentzako dirulaguntzak”, zeinek 13,5 milioi euroko gastua baitakarte, bai eta “langile autonomoentzako laguntzak” ere, zeinak 24 milioiokoa baitira.


Honakoak dira gastu horiek osatzen dituzten kontzeptu nagusiak:

| Deskribapena | Aitortutako betebeharrak, 2020 | %, guztizkoaren gainean |
|--|--------------------------------|-------------------------|
| Autonomoentzako eta ostalaritzarako laguntzak, COVID-19aren krisia dela eta | 37.571.112 | 46 |
| AUDENASA. Merkataritza-politika | 11.555.996 | 14 |
| Enplegu-zentro berezietarako laguntzak EGIF | 11.461.321 | 14 |
| Tasubinsarekiko hitzarmena, desgaitasuna duten pertsonentzat dauden lanerako ikastegietarako | 3.430.985 | 4 |
| Enpresek gazteak kontratatze laguntzak | 1.870.770 | 2 |
| Elkarkiderekiko hitzarmena, desgaitasuna duten pertsonentzat dauden lanerako ikastegietarako | 1.806.200 | 2 |
| Bidaiarien garraio-zerbitzuak mantentzeko laguntza | 1.779.842 | 2 |
| Langabetuentzako lanbide heziketarako laguntzak | 1.736.101 | 2 |
| Bidaiarien garraio-zerbitzuak mantentzeko laguntza, COVID-19aren krisia dela eta | 1.363.969 | 2 |
| Nafarroako ikus-entzunezkoen ekoizpenerako laguntzak | 1.081.169 | 1 |

Departamentuz departamentuko betetzea

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak gastatu du gehien, 85 milioi, eta ondoren Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak, 45 milioi, eta Eskubide Sozialetako Departamentuak, 22 milioi.

Departamentu bakoitzak guztizko gastuan hartzen duen ehunekoa honako grafiko honetan ageri da:



Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren gastua ehuneko 48 da. Ondotik daude Landa Garapeneko Departamentua (ehuneko 25), Eskubide Sozialetakoa (ehuneko 12) eta Ekonomia eta Ogasuneko eta Lurralde Kohesioa (ehuneko seina). Gainerako departamentuek ez dute gainditzen guztizkoaren ehuneko hiru.

II.2. DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

Dirulaguntza publikoen arlorako plangintza estrategiko bat edukitzeko beharra 2014an ezarri zen, Dirulaguntzei buruzko Foru Legea aldatzeko apirilaren 14ko 5/2014 Foru Legearen bitartez.

Dirulaguntzen plan estrategikoak (DPE, aurrerantzean) politika publikoak planifikatzeko tresna bat dira, helburu gisa dutenak jardura publiko bat edo interes sozial bat sustatzea izatea, edo xede publikoa bultzatzea. Hiru urterako aurreikuspenak jaso beharko dituzte.

DPEak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren foru agindu baten bidez onesten dira. Lau onetsi dira jada, eta http://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Presupuesto/Plan+Estrategico+Subvenciones/web-atariari argitaratu dira. Honako hauek: 2018-2020 DPEa, 2019-2021 DPEa, 2020-2022 DPEa eta azkena, 2021-2023 DPEa, 2021eko apirilean. Haien egitea ziklo jarraitu baten barrenean aurreikusten da, eta aukera ematen du aurreko urteko deialdiak ebaluatu eta analizatzeko, planaren denbora-aurreikuspenen beste urtealdi bat gehituz.

Planak programa-izaera du. Hori dela eta, haren eraginkortasuna aurrekontu-kontsignazioak baldintzatuta dago.

Gaur egun, 2020-2022 DPEa da indarrean dagoena. Plan horretan, aurrekoetan ez bezala, helburu estrategikoak aurrekontu-programei lotzen zaizkie. COVID-19ak sortutako osasun-krisiak eragina izan du bai izapidetze-epeetan, bai dirulaguntzaren lerroetan beraietan ere, zeinak, askotan, berriz definitu behar izan baitira.

DPEak dirulaguntza-lerroak jasotzen ditu, 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan jasotakoak, honako hauek kenduta:

- DFLaren 3. artikuluan aipatutakoak (dirulaguntza-izaera izan bai, baina DFLa aplikatzen ez zaiena).
- Osasun-zorroan jasotako prestazio ekonomikoak.
- Garrantzi ekonomiko eskasa dutenak (50.000 euro edo gutxiago).¹
- DFLak ezin ukituko dituen beste batzuk.

Lehenengo plana 2017an onetsi zenetik, departamentuen arteko lantaldeen bidez dirulaguntzen deialdiarekin lotutako hainbat gai jorratu dira. Kronogramak hobetzeko taldearekin eta helburuak eta adierazleak formulatzeko taldearekin lotutako bi eratu ziren, eta deialdien oinarriak eta justifikatu beharreko dokumentuak homogeneizatzeari buruzko hirugarren lantalde bat sortzea falta da.

DPEa bere indarraldian (2020-2022) garatzeko aurreikuspena 968 milioikoa da guztira, taula honen arabera:

| Dirulaguntza-mota | 2020ko aurrekontua | 2021eko aurrekontua | 2022ko aurrekontua | Guztira |
|--------------------------|--------------------|---------------------|--------------------|--------------------|
| Kapitala | 114.458.117 | 121.330.607 | 124.095.243 | 359.883.967 |
| Arrunta | 217.536.433 | 195.160.841 | 196.160.017 | 608.857.291 |
| Guztizko orokorra | 331.994.550 | 316.491.448 | 320.255.260 | 968.741.258 |

2020ko aurrekontuan, transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak 1.838 milioira iristen dira, hau da, aurrekontuan sartutako guztizkoaren ehuneko 40. Kopuru osotik, 2020rako plangintza estrategikoan bil daitezkeen dirulaguntzak 337 milioi dira, hau da, transferentzia-gastu gisa aurrekontuan sartutako guztizkoaren ehuneko 18. Garrantzi ekonomiko txikia dutenak alde batera uzten baditugu (sei milioi guztira), DPEan sartutako 2020rako dirulaguntzak 331 milioikoa dira.

Enpresa pribatuentzako dirulaguntzei dagokienez, 2020-2022 aldian, guztira 89 dirulaguntza-lerrotarako plangintza 369 milioikoa da (guztizkoaren ehuneko 38), honela banakatuta:

| Dirulaguntza-mota | 2020ko aurrekontua | 2021eko aurrekontua | 2022ko aurrekontua | Guztira |
|--------------------------|--------------------|---------------------|--------------------|--------------------|
| Kapitala | 50.382.539 | 53.734.671 | 54.989.542 | 159.106.752 |
| Arrunta | 70.818.811 | 68.673.600 | 70.793.016 | 210.285.427 |
| Guztizko orokorra | 121.201.350 | 122.408.271 | 125.782.558 | 369.392.179 |

89 dirulaguntza-lerroetatik, ehuneko 65 deialdi bidez ematea aurreikusten da, ehuneko 14 dirulaguntza izendunak dira eta ehuneko 21 zuzeneko dirulaguntzak dira, planaren terminologiaren arabera.

2020-2022 DPEaren berrikuspena Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren 126/2020 Foru Aginduaren bidez onetsi zen. Departamentu bakoitzak foru agindu bidez onetsi behar ditu 2020ko deialdien ebaluazio-txostenak, eta Nafarroako Foru Komunitateko Kontu-hartzailtza Nagusiari eta ekonomiaren arloan eskumena duen Nafarroako Parlamentuko batzordeari igorri behar dizkie 2021eko apirilaren 30a baino lehen. Txosten horietan honako hauek aztertuko dira: emakida-epen

¹ Finantza Kontrol Iraunkorreko eta Auditoretzako Zerbitzuaren DPEak egiteko, garatzeko eta ebaluatzeko aurreikusitako prozedurari buruzko finantza-auditoretzako 2020ko iraileko txostenaren gomendioa betez, 2021-2023 Planean eranskin bat dago, 50.000 euroko edo hortik beherako aurrekontu-zuzkidura duten zenbateko ekonomiko txikiko dirulaguntzen zerrendarekin.

betetze-maila, planteatutako helburuak, dirulaguntzaren zenbatekoaren betearazpena eta pertsona edo erakunde onuradunengana iristea.

II.3. APLIKATZEKO DEN ESPARRU JURIDIKOA

Honako hau da NFKAk eta haren erakunde autonomoek 2020an dirulaguntzak kudeatzeko aplikatu beharreko oinarritzko arau-esparrua:

- 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 59/2013 Foru Dekretua, irailaren 11koa, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargurako dirulaguntzen onuradunen gardentasunerako betebeharrak arautzen dituena.
- 5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa.
- 5/2020 Foru Legea, martxoaren 4koa, 2020ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1koa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- Europako Batzordearen 651/2014 Erregelamendua, 2014ko ekainaren 17koa, zeinaren bidez laguntza-kategoria jakin batzuk barne-merkatuarekiko bateragarritzat jotzen baitira, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz.
- Europako Batzordearen 1407/2013 Erregelamendua, 2013ko abenduaren 18koa, minimis laguntzei Europar Batasunaren Funtzionamendu Ituneko 107 eta 108. artikulua aplikatzei buruzkoa.

III. HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Lanaren helburuak hauexek izan dira:

- 2020ko ekitaldian legezketasuna betetzen dela ikuskatzea, iritzi bat emate aldera NFKAk eta haren erakunde autonomoek enpresa pribatuei emandako dirulaguntzak, alderdi aipagarri guztietan, aplikatzekoa den araudiarekin bat etortzeari buruz.

- Fiskalizazio finantzario bat egitea, iritzi bat emate aldera honako honi buruz: ea enpresa pribatuentzako dirulaguntzen gastuak alderdi aipagarri guztietan, jasota ote dauden, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

- Aztertutako laginerako, DPEaren edukia eta haren geroko ebaluazioa aztertzea.

Gure lanaren denbora-irismenak funtsean Nafarroako 2020ko ekitaldiko aurrekontu orokorren exekuzioan zentratuta dago, eta honako informazio hau aztertu dugu:

- NFKAren aurrekontu-partidak, 2020ko ekitaldiko enpresa pribatuentzako transferentzia arruntei eta kapitalekoei buruzkoak.

- 2020-2022 DPEa eta helburu eta adierazleen formulaziorako eta kronogramak hobetzeko sortutako departamentu arteko lantaldeen konklusio nagusiak.

- Finantza Kontrol Iraunkorrerako eta Auditoretzako Zerbitzuak DPEak egiteko eta haien edukia zehaztu, garatu eta ebaluatzeko aurreikusitako prozedurari buruzko finantza-auditoretzako txostena.

- Aplikatzekoa den araudia.

- Extr@ espedienteen kudeatzaile elektronikoan eta, kasua bada, laguntzak kudeatzeko aplikazio informatikoetan biltegitutako informazioa.

Lan honen berrikuspenaren xede den gastua 70 milioikoa da, enpresa pribatuentzat 2020ko ekitaldian emandako transferentzien ehuneko 39. Hona hemen xehetasunak:

| Enpresentzako transferentziak | 2020 | Berrikusitako COVID gastuak a) | FEADER b) | FEDER c) | Ubideko kanona d) | Audenasari e) | a-b-c-d-e guztira, 2020an |
|-------------------------------|-------------|--------------------------------|------------|------------|-------------------|---------------|---------------------------|
| Kapitalekoak | 60.267.455 | | 15.587.189 | 24.146.121 | | | 20.534.146 |
| Arruntak | 119.864.446 | 26.377.714 | 9.963.361 | 408.676 | 21.988.562 | 11.581.348 | 49.544.785 |
| | 180.131.902 | 26.377.714 | 25.550.550 | 24.554.798 | 21.988.562 | 11.555.996 | 70.078.931 |

2020an betetako gastu osotik, 180 miloi, kanpoan utzi ditugu COVIDaren kudeaketari lotutako gastuak, zeinak jada berrikusi baitira Kontuen Ganbeak 2021eko apirilean argitaratutako txostenen. Txosten horretan, izan ere, 2020ko martxotik abendura doan aldia dirulaguntzak direla-eta egindako gastua, 26 milioikoa, aztertzen zen. Halaber, kanpoan utzi dugu Audensari egindako transferentzia, zeina jada berrikusi baita Kontuen Ganberaren txosten batean, 2021eko ekainean argitaratutakoan. Honako hau da txosten horren izena: "Politika komertzialetik eratorritako deskontuak direla-eta NFKAk Audenasari eginiko konpentsazioa (2020)". 2020ko aurrekontuari egotzitako gastua, berriz, 11,5 milioikoa da.

Txosten honen ondorioetarako ez dira kontuan hartzen Europako funtsekin finantzatutako laguntzak, zeren eta haien berrikuspina Nafarroako Gobernuaren Kontu-hartzailatza Nagusiaren urteko txostenen jasota baitago, ez eta Nafarroako Ubidearen ureztaketa-kanona, zeina urtero berrikusi baita NFKAren kontu orokorren txostenen.

Aزتتutako lagina honako aurrekontu-partida hauei dagokie:

Dirulaguntza arruntak

| Departamentua | Kontzeptua | Zenbatekoa |
|--|---|------------|
| Lurralde Kohesioa | Bidaiarien garraio-zerbitzuak mantentzeko laguntza | 1.779.841 |
| Unibertsitatea, Berrikuntza eta Erald. Digitala | Ikertzaileak eta langile teknologikoak kontratatzeko laguntzak; industriako doktoregoak; ikertzaileen mugigarritasuna | 558.399 |
| Eskubide Sozialak (Nafarroako Enplegu Zerbitzua) | Enpresek gazteak kontratatzeko pizgarriak | 1.870.769 |
| Garapen Ekonomiko eta Enpresariala | Enpresak sortzen laguntzeko dirulaguntza | 185.569 |
| Garapen Ekonomiko eta Enpresariala | COVID-19a. Turismoaren eta Ostalaritzaren arloko enpresa txiki eta ertainentzako dirulaguntzak | 13.541.412 |

Bost partida hauek txosten honen norainokoaren zati bat diren dirulaguntza arrunten guztizkoaren ehuneko 36 dira.

Kapitaleko dirulaguntzak:

| Departamentua | Kontzeptua | Zenbatekoa |
|------------------------------------|--|------------|
| Garapen Ekonomiko eta Enpresariala | Enpresa handietan inbertitzeagatiko dirulaguntzak | 1.581.959 |
| Garapen Ekonomiko eta Enpresariala | I+G proiektu estrategikoetarako dirulaguntzak RIS3 Nafarroa | 13.873.998 |

Bi partida hauek txosten honen norainokoaren zati bat diren dirulaguntza arrunten guztizkoaren ehuneko 75 dira.

Berrikusitako deialdiak zazpi dira guztira. Haien xehetasunak 1. eranskinean kontsulta daitezke. Deialdi batzuek, aurreko ekitaldietatik badatoz ere, abian jarraitu dute eta gastua ekarri dute 2020an.

IV. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren erantzukizuna

NFKAko departamentuen eginbeharra da gastuak zuzen esleitzea aurrekontuko partidei; eta bermatzea aplikatu beharreko araudiarekin bat datozela ematen diren dirulaguntza guztiak.

Ekonomia eta Ogasun Departamentua da, Kontu-hartzailtza Nagusiaren bidez, beharrezkotzat jotzen dituen barne kontroleko sistemak ezartzeko erantzukizuna duena, departamentuek aurreko paragrafoan ezarritakoa betetzen dutela egiaztatzeko.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea dirulaguntzekin zerikusia duten jarduketak legezkotasunaren arabera izateari buruz eta informazio finantzarioa aplikatzeko den araudiaren arabera izateari buruz, bai eta DPEa aztertzea ere.

Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera, eta, zehazki, finantza-fiskalizazioari buruz ISSAI-ES 200 delakoan ezarritakoen arabera, bai eta legezkotasuna betetzearen fiskalizazioari buruzkoa den ISSAI-ES 400 delakoan ezarritakoen arabera ere; halaber, kanpo kontroleko organoen fiskalizazioari buruzko gida praktikoak erabili ditugu. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta betearaztea egin dezagula ere, honako helburu honekin: arrazoizko segurtasun bat izatea ekitaldian egindako jarduerak zein finantzen egoerorrietan islatutako informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izateari buruz.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko urteko kontuetan adierazitako zenbaterikoei eta informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan —entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita— inguruabarren arabera auditoretza-prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez.

Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta aztertutako aurrekontupartiden aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia eskaintzen du finantzen eta betetzearen gaineko gure fiskalizazio-iritzia funtsezko.

IV.1. LEGEDIAREN BETETZEAREN FISKALIZAZIO-IRITZIA

IV.1.1. Legediaren betetzeari buruzko iritzia

Gure iritziz, NFKAk enpresa pribatuei 2020an emandako dirulaguntzak bat datoz, alderdi esanguratsu guztietan, aplikatzeko den araudiarekin.

IV.1.2. Beste oharpen batzuk, emandako iritzian eraginik ez dutenak

Ondorio orokorrak

- Administrazioa sinplifikatzearen printzipioak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean jasotakoak, helburu gisa du prozedurak dimentsio ezin hobeetara jaitea. Berrikusatiko deialdietatik batzuetan, aurrera egin da prozeduren diseinuan, aplikazioak eta informazio-sistemak garatuta; adibidez, SUMA, Nafarroako Enplegu Zerbitzuan, eta GESTAM,

Garapen Ekonomikoko Departamentuan. Horrela, erraztasunak eman dira prozedurak sinplifikatzeko eta gardentasuna lortzeko.

- “Nafarroako Gobernuak entitate eta elkarte batzuei emandako dirulaguntzei buruzko txostena (2014)” txostenean eta “Nafarroako 2019ko Kontu Orokorrak” txostenen Kontuen Ganberak adierazi bezala, “Ikusi da oinarri arautzaileak oso exhaustiboak direla betekizunei dagokienez, eta izapide administratibo ugari eskatzen dituztela, arduraldi eta zeregin bereziak eragiten dizkietenak bai organo emaileari, bai onuradunari ere; halaber, ikusi dugu nolabaiteko exigentzia bat badagokela, murriztapen eta muga batzuk ezari baitira zenbait gastu-kontzeptu justifikatzeko.

- Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduan araututako zenbait txikiko laguntzak, minimis izenekoak, hiru zerga-ekitalditan enpresa bakoitzeko 200.000 euro gainditzen ez dituztenak dira. Deialdi guztiek jasota uzten dute laguntzek minimis araudi hori bete behar dutela, eta dirulaguntzaren eskabidearekin batera, azken hiru ekitaldietan jasotako minimis laguntzak egiaztatzen dituen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar dela. Ez da inongo kontrol gehigarriak egiten.

- Objektibotasunaren printzipioak, Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 5. artikuluan araututa dagoenak, behartzen du deialdietan eskabideak baloratzeko irizpideak sartzera, bai eta irizpide horien arabera ebaluazioa egitera ere. Ikusi dugunez, bai doktoregaiei bai proiektu estrategikoei emandako laguntzetan, eskabideak baloratzeko irizpideak ez daude behar bezala garatuta oinarri arautzaileetan, eta horrek zaildu egin du egindako balorazioaren justifikazioa kontrolatzea.

Enpresa industrial handientzako inbertsiorako laguntzak.

Eskaera guztietatik 26 ukatu dira, eta horietatik 21 baztertu egin dira, aurrekonturik ez dagoelako. Emakidak kreditu erabilgarria agortzen du, 2,5 milioi guztira, baina organo emaileak, azkenean, laguntzen eta ordainketen zenbatekoa 1,5 milioitan finkatzen du. Emakidaren onuradun izan diren 14 enpresetatik zazpi ez dute azkenean inolako laguntzarik jasotzen, epearen barruan justifikaziori aurkeztu ez dutelako (0,7 milioi euro). Emakidaren eta oinarrietan ezarritako justifikazioaren arteko epea hiru hilabetekoa bazen ere, bi hilabetera murriztu zen, emakida atzeratzeagatik.

Halaber, ikusten da atzerapena egon dela justifikatzeko epea amaitzen denetik dirulaguntza ordaindu arte, hau da, oinarrietan aurreikusitako gehieneko epea (sei hilabetekoa) baino hamar hilabete gehiago.

Deialdia Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren Dirulaguntzen Oinarri Nazionallean argitaratzen da; ematea, ordea, ez da argitaratzen.

Garraiorako laguntzak

Lurralde Kohesiorako Departamentuak bidaiarien garraio publiko erregularren zerbitzuaren enpresa emakidadunei emandako laguntzak, NFKaren titulartasunekoak, konpentsazio ekonomiko araubide berezi baten menpe daude, emakidaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko. 2020ko gastua 1,3 milioikoa izan zen.

Laguntza hori "zerbitzuaren prestazioan ustiapen-defizita duten linea erregularren enpresa emakidadunentzako laguntza" delako DPEan sartuta dago.

Emakida-kontratuaren araututa dago. Kontratu horiek 2009an aldarazi ziren, xedetzat harturik 2009an eta hurrengo urteetan ustiapen defizitarioa izandako enpresa emakida-hartzaileentzako laguntza horien araubidea ezartzea; horrenbestez, ez dauka dirulaguntza-aintzatespenik, ez dago DFLri loturik, eta halaber ez zen DPEn jaso beharko.

Laguntza horren berrikuspenean oker bat detektatu da ustiapen defizitarioagatik diruzko konpentsazioan, hain zuzen 2019. urtekoa izanik 2020an ordaindu zen horretan. Departamentuak berrikusi egin ditu aurreko urte preskribitugabeetako kalkuluak, erregularizazioa egin du eta 2017-2019 urte-tartean eginiko gainordainketen itzulketa eskatu du, zeinek 19.555 euro egiten baitute.

Interes ekonomiko orokorreko zerbitzu-emate horretan aritzeko emakidak 2014an bukatu ziren, eta ez da emakida-berritzerik egin.

Zerbitzu-emateak aurrera segitu du, eta enpresa emakida-hartzaileentzako diruzko konpentsazioak ordaindu dira 2015-2019 epeari aberaste bidegabearen doktrina aplikatuz, 5,8 milioiko guztizko zenbatekoarekin.

Ostalaritzarentzako laguntzak

Turismoaren eta ostalaritzaren sektoreei COVID-19ak ekarritako ondorio ekonomikoengatik kalte-ordaina emateko laguntzen deialdiak 13,5 milioiko gastua izan du 2020an.

Departamentuak laguntzen kudeaketarako sistema automatizatu bat ezarri zuen, GESTAM aplikazio informatikoaren bitartezkoa, hala baldintza-egiaztapeneko prozeduretarako nola laguntzaren zenbatekoaren kalkulu automatizaturako eta, kasua izatenez gero, horien itzulketarako.

Dirulaguntza horren kudeaketarekin zerikusia izandako informazio-sistemen gaineko hiru kontrol berrikusi ditugu eta hiru proba substantibo egin dizkiegu, eta emandako dirulaguntza guztiak aztertu ditugu (2.074 onuradun eta 13 milioi). Lorturiko emaitza honakoa izan da:

| | Eraginkorrak | Eraginkorrak, gomendioekin | Ez-eraginkorrak | Guztira |
|---------------------|--------------|-------------------------------|-----------------|---------|
| Kontrol kopurua | - | 2 | 1 | 3 |
| Proba substantiboak | 3 | - | - | 3 |

Eginiko kontroletatik eratorritako emaitzei buruz, honakoak nabarmentzen ditugu:

- Administratzaileak eta aplikazio-erabiltzailea ez diren erabiltzaile guztiek daukate irakurbaimena, salbu eta idazbaimena daukan erabiltzaile batek, zeina, aplikazioa garatzeko premiagatik, gaitua izan baitzen horren premia izatearen kasurako.

- Eskuz egiten da Gestam-eko ordainketen sorkuntza eta SAP GE21en kargatzea.

- Eginkizun programatuen monitorizazioa gaitu egin da, baina ez da horren aldizkako berrikuspenik egiten. Eginkizun programatuen barruan, tarteko karpeta bat erabili ohi da, eta horretan honako ahulezia hauek detektatu ditugu: fitxategiek ez dute idazbabesik, eta karpetarako idazbaimena daukaten bi erabiltzaile-talde daude, noiz eta baimen horiek irakurtze soilerako izan beharko liratekeenean. Kasu horretan ere, horren zergatia garapen-beharra presakoa izatea da. Ezin izan dugu egiaztatu karpetako aldaketak behar bezala baimenduta ote dauden, auditoretza-erregistroa ez dagoelako gaituta.

- Datu-basean ez da aurkitzen aldaketa-baimenen erregistrorik.

Laburbildurik, ondoriozta daiteke ezen ostalaritzarentzako laguntzak kudeatzeko prozeduretan eta horiei euskarria ematen dieten informazio-sistemetan dagoen kontrol-mailak konfiantza-maila egoki bat eskaintzen duela, bermatzeko modukoa haiek ondo betetzen direla, eginiko transakzioak egokiro kontabilizatzen direla, eta kasuko informazioa balioduna, osoa, zehatza, konfidentziala eta eskuragarria dela.

IV.2. FISKALIZAZIO FINANTZARIOKO IRITZIA

Finantzei buruzko iritzia

Gure iritziz, 2020ko aurrekontutik enpresa pribatuetarako transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak prestatuak izan dira, alderdi garrantzitsu guztietan, informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparru aplikagarriari jarraikiz eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta -irizpideei jarraikiz.

Beste oharpen batzuk, emandako iritzian eraginik ez dutenak

- Ikusi dugu aurrerakin edo konturako ordainketa guztiak ez direla ezeztatzen onuradunak baldintzak bete eta aurreratutako funtsen aplikazioa justifikatu ondoren. Doktoregaienezako laguntzen deialdian, aurrerakinengatiko zordunen 2021eko ekaineko saldoa, espedientea jada amaiturik egonda, 288.314 eurokoa da.
- 47. eta 77. aurrekontu-artikuluek, "enpresa pribatuentzako transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak" direlakoei buruzkoek, ez dituzte soilik enpresentzako transferentziak jasotzen; halaber jasotzen dituzte ikerketa-erakundeentzakoak eta ezagutza-hedapeneko erakundeentzakoak. I+G estrategikoen (RIS3) deialdian, nahiz eta enpresa pribatuei dagokiena ordaindutako guztiaren ehuneko 20 baino ez izan, aurrekontuari egozten zaio enpresa pribatuentzako transferentzia gisa.

IV.3. DIRULAGUNTZEI BURUZKO PLAN ESTRATEGIKOAREN ANALISIA.

Nafarroako Gobernuak 2018ko azaroan onetsitako DPEaren helburuak eta adierazleak formulatzeko gida bat du definituta. Dirulaguntza ildo bakoitzerako adierazle multzo bat zehazten da, helburuari lotuak, egoera eta helburuak betetzean lortutako aurrerapenak ezagutzeko.

Honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu DPEan enpresa pribatuentzako dirulaguntza-ildoei buruz egiten den analisia dela eta:

- DPEa osatzen dute txosten global batek eta, departamentu bakoitzeko, zenbat dirulaguntza-lerro, hainbeste fitxak. Dirulaguntzak emateko prozedurari dagokionez, ez da bereizketarik egiten norgehiagokaren eta banakako ebaluazioaren artean. Zuzeneko dirulaguntza-emateetan, ez ditu bereizten dirulaguntza izendunak eta lege-mailako arau batek aginduta eman beharrekoak diren edo lege horrek agindutako zenbatekoa duten dirulaguntzak.
- Dirulaguntza-lerro bakoitzerako adierazle bat gutxienez definitzen da nahitaez, eta adierazle horietako bakoitzerako abiaburu-datu bat eta helburu bat definitzen dira. Nagusi dira deialdiaren datu estatistikoei buruzko kudeaketa-adierazleak, eta ez dira barne hartzen kasuko sektore ekonomikoarekin eta ezarritako neurrien inpaktuarekin zerikusia daukaten bestelako adierazle batzuk. 89 dirulaguntza-fitxetatik, guztiek daukate bederen adierazle bat, helburu operatiboa neurtzekoa; 41ek gutxienez ere bi adierazle daukate, eta 9k, hiru adierazle.
- 13 departamentuetatik, zazpi bidali diete Parlamentuko Kontu-hartzaitzari eta ekonomia batzordeari foru agindu bitartezko ebaluazio-onespena. Eranskin gisa gehitzen dira lerro bakoitzaren ebaluazio-fitxak, pdf formatuan.
- DFLk DPErako ezartzen duen egutegia ez dator bat dirulaguntza askorekin, dirulaguntza horien egutegia bat ez etortzeagatik urte naturalarekin. Hori dela-eta, askotan gertatzen da ebaluazio-txostenak deialdia oraindik irekita dagoelarik onesten direla.
- Urte anitzeko deialdien kasuan, dirulaguntza-lerroen informazioak eragiten du partida berean deialdi ireki bat baino gehiago egotea. Dirulaguntza-lerro batek betetze-fase ezberdinetan dauden zenbait deialdi ireki daukanean, aurrekontu-datuek eta adierazleek ez dute informaziorik eskaintzen haietako bakoitzaz, baizik eta deialdi guztien datu agregatuak edo, zehazki, azken deialdiarenak eskaintzen dituzte.
- Dirulaguntza-lerro bakoitzeko ebaluazio-fitxa indibidualen eredua pdf formatuan definitzen da, eta horrek eragiten du informazioa ezin azkar eta eraginkortasunez analizatzea.

IV.4. AMAIERAKO KONKLUSIOA ETA GOMENDIOAK

2020an enpresa pribatuei egindako transferentziek, arruntek zein kapitalekoek, 180 milioi egin zuten. Transferentziengatik aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 9,7 egin zuten.

Guztira 29,6 milioiko zenbatekoa egiten duten emandako dirulaguntzen lagin bati buruz, izapidetzearen legezketasuna aztertu dugu. Konklusioa da prozedurak, oro har, aplikatzekoa den araudia betetik egin direla. COVID-19aren krisiagatik ostalaritzarentzako laguntzen informazio-sistemek moduzko konfiantza-maila eskaintzen dute.

Enpresa pribatuei onetsiriko transferentzien kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa oro har ondo islatu da NFKAren egoera-orri finantzarioetan, aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideei jarraikiz.

DPEa egin da eta urtero eguneratu da araudiari jarraikiz, nahiz eta egin den lanak agerian utzi duen mugatua dela etengabeko hobekuntza eta ebaluazioaren ezarpena dirulaguntza-politikaren kudeaketan.

Iritsitako konklusioak kontuan harturik, honakoak gomendatzen ditugu gure lanaren ondorioz detektaturiko okerrei buruz:

- *Dirulaguntza-deialdiak sinpletzea, aintzat harturik kudeatze-organoarentzako eta onuradunarentzako eraginkortasunaren eta arazoizkotasunaren printzipioak, eta oreka bat bilatuz jarraipen zein kontrolaren eta baldintza zein betekizun dokumentalen artean.*
- *Gastu-kontzeptu ezberdinen justifikazioan mugak malgutzea, bereziki inbertsioentzat.*
- *Laguntzen digitalizazioan aurrerapausoak ematea, kudeaketaren eta baldintza-egiaztapenaren administrazio-kostu handia jaisteko.*
- *Dirulaguntzen oinarri arau-emaeletan ezarritako justifikazio-epeak malgutzea, halako moduz non errealistak izanzen baitira eta enpresei modua emanen baitiete beren inbertsioa epe aurreikusian egin eta justifikatzeko.*
- *Justifikazio-betebeharren urraketa partzialak aztertzea, proportzionaltasun-irizpideak aplikatuz.*
- *Deialdian zehaztea bai irizpide objektiboak bai horien aplikaziorako baremoak, eta motibazio argia eta xehaketa ematea, espedientean jasota utzirik zer balorazio lortu duten eskatzaileek oinarrietan ezarritako onespenezko irizpideen arabera.*
- *Deialdiaren zenbatekoaren aurrekontu-egozpena egitea onuradunen multzoan muntarik handienekoa den jasotzaile-taldearen aurrekontu-artikuluari.*
- *Onespenezko Dirulaguntza Base Nazionalean argitaratzea.*
- *Gutxienez ere lagin batean berrikustea enpresa berari emandako minimi laguntzei buruzko erantzukizunpeko adierazpenen errealitatea, horien laguntza-mugaren gaineko kontrola handiagoa izan dadin.*
- *Zerbitzuetarako emakida-kontratu mugaeguneratuak izapidetzea.*
- *Bidaiari-garraio erregularraren emakida-hartzaileen defizitaren diruzko konpentsazioagatik laguntzak egozteko ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunten kapituluari.*

Ostalaritzarentzako laguntzei dagokienez

- *Aldizka berrikustea Ogasunaren datu-eskurapeneko prozesuaren jarraipena egiten dela, eta berrikuspen horren erregistro bat gordetzea.*
- *Tarteko karpeten segurtasuna hobetzea (haietan biltegiatzen dira Ogasunaren datuak), fitxategiak idazketaren aurka babestuz eta edozein erabiltzailek eginiko aldaketa guztien auditorietza-erregistroak aktibatuz.*

- *Erabiltzaileek datu-basean eginiko aldaketa ez-aplikagarrien erregistro bat aktibatzea.*
- *Ordainketen eta SAP GE21en kargatzekoak diren fitxategien sorkuntza automatizatzea.*

Dirulaguntzei buruzko plan estrategikoari dagokionez

- *Dirulaguntzen inpaktua ebaluatzea, helburu-jarraipenerako adierazleen definizio xehakatuaren bidez eta izandako desbideraketen analisiaren bidez, horiek oinarri hartuz etengabeko hobekuntzarako erabakiak hartu ahal izateko.*
- *DPEaren fitxetan bereiztea, deialdi publiko bitartezko onespren-prozedurari dagokionez, ea norgehiagoka den ala banakako ebaluazioa; eta, zuzenean emanikoa bada, izenduna ala ohiz kanpokoa den.*
- *Dirulaguntza-fitxak betetzeko jarraibide argiak prestatzea, lerro bererako irekitako deialdi bat baino gehiago dagoenean aurrekontu-ekitaldi berean.*
- *Ebaluazio-txostenen formatua aldatzea, datuak ustiagarriak izan daitezen eta modua eman dezaten departamentuek analisia eta jarraipena egin ahal izateko.*
- *Espedientea amaitu ondoren, ebaluazio-txostenak egitea urte anitzeko deialdien kasurako edo egutegia urte naturalarekin bat ez datorren horietarako.*
- *Hasiera baterako planteaturiko departamentuarterko lantaldea eratzea, deialdi-oinarrien eta DPEren esparruan justifikatu beharreko dokumentuen homogeneizazioari buruzkoa.*

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Begoña Herrera Isasi andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2021eko irailaren 15ean
Lehendakaria,
Asunción Olaechea Estanga

1. ERANSKINA.- BERRIKUSITAKO DEIALDIEN XEHAKAPENA

| Konzeptua | Prozedura | Period. | Deiald. aurrekontua | Eska-tzaille-kop. | Ones-pen-kop. | Ukazio-kop. izapide-tzeko baz-tertuak | Aurrek. ezagatikoko ukazio kop. | Ukazio / eskabide % | Onesiaren zenbatekoa | Onetsia / aurrerak. | Pagaturiko zenbatekoak | Pagatua / onetsia, % | Pa-gatua / aurrerak., % | Guztira Enpresak eta autonomoak | Enpre-sak / onets. guztiz-koa, % |
|---|---------------------|------------------------|---------------------|-------------------|---------------|---------------------------------------|---------------------------------|---------------------|----------------------|---------------------|------------------------|----------------------|-------------------------|---------------------------------|----------------------------------|
| Laguntzak, enpresak eta ikerketaren eta ezagutza-dibulgazioaren alorreko erakundeek dokoregaiak kontratatzeak | Norgehiagoka | Urte antzezkoak 3 urte | 1.500.000 | 32 | 17 | 15 | 13 | % 47 | 1.455.262 | 97 | 1.029.561 | 71 | 69 | 653.148 | 63 |
| Enpresak gazteak kontratatzeak pizgarriak | Banakako ebaluazioa | Urte antzezkoak | 1.480.000 | 368 | 318 | 50 | 0 | % 8 | 1.465.860 | 99 | 1.465.860 | 100 | 99 | 1.465.860 | 100 |
| Inbertsiorako laguntzak, enpresa handientzakoak | Norgehiagoka | Urtero | 2.500.000 | 40 | 14 | 26 | 21 | % 65 | 2.500.000 | % 100 | 1.581.959 | 63 | 63 | 1.581.959 | 100 |
| I+C proiektu estrategikoetan inbertitzeko laguntzak | Norgehiagoka | Urteantzezkoak | 12.000.000 | 60 | 46 | 14 | 4 | % 23 | 9.182.407 | 77 | 7.765.303 | 85 | 65 | 1.587.277 | 20 |
| Ostalaritza eta turismoarentzako laguntzak | Banakako ebaluazioa | Urtero | 20.000.000 | 2.810 | 2.074 | 566 | 0 | % 20 | 13.538.562 | 68 | 13.538.562 | 100 | 68 | 13.538.562 | 100 |
| Hasierako gastuetarako laguntzak, enpresentzakoak | Banakako ebaluazioa | Urtero | 280.000 | 133 | 100 | 33 | 0 | % 25 | 185.569 | 66 | 185.569 | 100 | 66 | 185.569 | 100 |
| Guztira | | | 37.760.000 | | | | | | 28.327.660 | 75 | 25.566.814 | 90,2 | 67,7 | 19.012.375 | 74,3 |

OHARRA: Garriaroko laguntzak kanpo uzten dira, berez ez baitago horretarako deialdirik.

| Kontzeptua | Departamentua | Helburu estrategikoa | Plan sektoriala | Helburu operatiboa | Adierazlea |
|---|--|---|---|---|---|
| Bidaierien garrario-zerbitzuak mantentzeko laguntzak | Lurralde-kohesioa | Nafarroako mugikortasun jasangarriarako estrategia bultzatzea | | Hiriarteko garrario publikoaren erabiltzaileen kopurua handitzea | Urteko bidaieri-kop. |
| Laguntzak, enpresek eta ikerketaren eta ezagutza-dibulgazioaren alorreko erakundeek doktoregaiak kontratatzeakoak | Unibertsitateak | Ikertalentua sustatzea | Zientzia, teknologia eta berrikuntza plana | Goi-mailako ikerketa-lagileak enpresetan eta ikerketa-erakundeetan sartzea | Diruz lagundutako kontratuen kopurua |
| Enpresek gazteak kontratatzeko pizgarriak | Eskubide sozialak (Nafarroako Enplegu Zerbitzua) | Nafarroako kaltetutako enplegu egonkorra areagotzea | Enplegu-nollika aktiboetako buruzko erabakia | Enplegu-sustapena, 30 urte baino gutxiagoko langabetuentzat | Gazte kontratuen kop. |
| Inbertsiorako laguntzak, enpresa handientzakoak | Garapen ekonomikoa. | Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren S3 Estrategia garatzeko esparru aproposa sortzea | Nafarroako industria plana | Sustatzea enpresa handiek inbertsio produktiboko proiektuak egin dituzaten, haien lehiakortasun-positiboa hobetze aldera. | Manufaktura-industria bako bako erantsi gordin, % |
| I+G proiektu estrategikoetan inbertsio laguntzak | Garapen ekonomikoa | Nafarroarentzat etorkizuna duten sektore ekonomikoen garapena bultzatzea, begirada jarritz Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren S3 Estrategian. | Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren S3 Estrategia | Nafarroako RIS3 sektore ezberdinetan dituen erronka estrategikoetarako soluziobide berritzaileak proposatzea | Diruz lagundutako proiektuen kopurua |
| Hasierako gastuetarako laguntzak, enpresentzakoak | Garapen ekonomikoa. | Enpresa-ehunduraren eraldaketari eta modernizazioari laguntzea, babesa emanaz Nafarroako enpresa txiki eta ertainei eta haien garapen lehiakor eta jasangarriari. | Nafarroako II. Ekintza Plana | Ekintzaileen jarduna sustatzea, kaltetutako enplegua sortze aldera. | Onespen-kopurua |

OHARRA: Kanpoan utzi dira ostalaritzarentzako laguntzak, ez baitaude plan estrategikoan sartuta.

